

Maidier López  
 Ataskoa  
 Intza, 2005eko irailaren 18a

## ATASKOA vs. ataskoa

Ezer baino lehen: ataskoa ez da auto ilara. Eta jarraitu aurretik bota beharreko beste ohar bat: ondoren irakurriko duzuna ez da arte kritika bat, Aralarreko Mailoen azpian ATASKATURIK egon zen norbaiten kontakizuna baizik.

Intza bezalako herri batera daraman errepedean atasko bat gertatzea ezinezkoa da ia. Horregatik deliberatu zuen ziurrenik Maidier Lópezek ATASKOA bertan sortzea. *Sonrisas y Lágrimas* (The sound of music) filmeko paisaia baten erdian ATASKOA sortzea, berez, absurdua da. Eta hain justu horregatik iruditzen zait interesgarria ekintza hau. Esan dut goian artistikoki zer emaitza edo eraginkortasuna duen baloratzea ez dagokidala niri. Hala ere, badakit bizitzan benetan merezi duten gauzak gehienetan absurduak eta logikarik gabekoak direla. Maitasuna, desioa, sexua, inbidia, boterea, drogak, arrakasta... beren baitan absurduak dira, ez dute logikarik, baina gure bizitzaren ardatz bihurtzen dira. Eta ATASKOA, ekintza absurdu gisa, liluragarria da. Ez duelako zentzu logikorik. Artista baten burutapena da. Eta hain justu horregatik izan da posible eta gauzatu da ekintza hau. Artisten "hausnarketa onanistek", askotan, lekuz kanpo uzten gaituzte eta hori da hain zuzen atsegin ez duguna: gure burua ezjakin gisa ikustea. Eta hor dago erronka. ATASKOA bezalako jardueren pentsarazten digute, nahi edo nahi ez. Gure burua zuritzeko besterik ez bada ere. Horren harira, gizartearen gehiengoari arte garaikidea arrotza egiten zaigun heinean iruditzen zaizkit interesgarriak Maidier Lópezek bere obran mantendu ditun hainbat konstante: bere obrak kalean eta espazio publikoetan txertatzen ditu, eta bertan kamuflaturik, gure egunerokotasunaren parte bihurtzen dira. Eta kasu honetan bezala, artistak ez du bere obraren inguruan azalpenik ematen. Mendian ATASKATZEN gaitu eta gu, gure kotxeko ipurdian azaltzen diren ardiak modura, han geratzen gara, artalde baten modura artzainak diotenari baaaaai esaten. Zentzu horretan, egunero pairatzen ditugun ataskoak eta Intzako ATASKOA gauza bera dira. Azken finean, goizero, lanerako bidean topatzen dugun pilaketa hori ere ez delako bat-batean sortutako zerbait.

Artistaren kortesia



Maidier López *Ataskoa* 2005

Arrazoi batengatik edo bestearengatik, pertsona multzo batek zita egiten du egunero errepedean bertan ataskatuta geratzeko. ATASKOA ri esker, ataskoen inguruan hausnartu ahal izan dugu eta ekintza fisiko bera zer modu ezberdinetan bizi daitekeen ikasi dugu. Ataskoa kaosa, urduritasuna eta ostia txarraren sinonimoa izan daiteke batetik, eta bestetik, ATASKOA paraje eder bat ezagutu eta jendearekin komunikatzeko aukera ere izan daitekeela jabetu gara.

Hau guztia esan ostean, Maidier Lópezen ekintza honetan gertatu zen kontraesan nabarmen bat ere aipatu nahi nuke. Atasko bat izan arren, ATASKOA ren antolakuntza suitzarra izan zela. Ez zen auto gidarien artean liskarrik izan, bapo bazkaldu eta edan genuen, iragarrita zegoena baino lehenago amaitu zen eta gainera, larreetan barneratu ginenok golkoa txanpinoiez beteta itzuli ginen etxera. Niri behintzat, une batez, Maidier López Intzako belardi berdeetan behera ikusi nuenean Julie Andrews-en aurpegia zuela eta kantari zebilela iruditu zitzaidan...

*I go to the hills when my heart is lonely  
 I know I will hear what I've heard before  
 My heart will be blessed with the sound of  
 music...* Koldo Almandoz